

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Lehenengo maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Argitaratzen du: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimatzen du: Ulzama Digital

Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaieela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gela-ko ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egi-tea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtsu gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarreanean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

5. Klima eta geografia	7
6. Lan eskaintza	19
7. Aisia: telebista eta liburuak	33
8. Aisia: zinema	41
9. Aisia: musika	53
10. Aisia: bidaiak	63



5

Klima eta geografia

Dena berde-berdea da

1.

Jarduera



Mintzamena

Berriketan

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: irudi bati buruzko iritzia azaltzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: txanda laburreko elkarrizketak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: gai arrunt bati buruzko iritzia trukatzea.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
ez dira> [eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste...
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Konpletiboa: -(e)la
 - Elementu diskurtsiboak.
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak.
 - esandakoarekiko adostasuna azaltzeko: bai, hala da, bistan dago
 - ezadostasuna azaltzeko: ez dut uste, ez nago konforme
 - zalantza adierazteko: ez dakit, ez nago seguru
 - bete lana egiteko formulak: bueno, ah, zera, nola esan ba...

Prozedura

Hirunaka jarrita eta txandaka, irudiak dakartzkien sentsazioak, arrazoituz, ahoz azalduko dituzte.

Gero, talde txikietan ateratakoa, talde osoaren aurrean aurkeztu beharko dute.

2.A

Jarduera

Euria, orain ere!



Entzumena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Telebistako berriak.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio kanala: bitartekoak medio (telebista).
 - Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: irudizko euskarria izanik galderari erantzun.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
ez dira> [eztira]
ez ba> [ezpa]
 - Doinuera eta intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nork (Nor 3.)
 - Nor-Nori (Nor 3.)
 - Aspektua: burutua, ez burutu puntukaria, etorkizuna.
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: baina
 - Menpeko
 - Konpletiboa: -(e)la

- Elementu diskurtsiboak.
 - Ez-hitzeko kodea: irudiak, keinuak, etenak, isiluneak,...
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak.
 - elkarrizketari hasiera emateko: agurra, gaiaren sarrera.
 - elkarrizketari amaiera emateko.

Prozedura

Bertatik Bertara saioko eguraldiaren zatitxoa bi edo hiru aldiz jarriko da.

Galdetegia aurretik irakurtzea eta honi dagokion hiztegia lehenago ezagutaraztea komeni da.

Bukatutakoan zuzenketa egin eta ulermena nolakoa izan den baloratuko da.

2.B

Jarduera

Guk uste dugu...



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: mapa aurrean izanik eguraldia deskribatzea .
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: gai bati buruz informazioa ematea.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
 - ez dira> [etzira]
 - Doinuera eta intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: eguraldiaren ingurukoak

- Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nork (Nor 3.)
 - Nor-Nori(Nor 3.)
- Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak.
- Perpaus elkartuak.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Konpletiboa: -(e)la
- Elementu diskurtsiboak.
 - Elkarrekintzak.
 - Agurra: kaixo, egun on,..
 - Gaiaren sarrera: hemen gaude...
 - Gaia gidatu: gure ustez,...
 - Amaitu: esan bezala,..
 - Azken agurra: hurrengo arte, agur,..

Prozedura

Ikasleek, hiruko taldeetan, Euskal Herriko lurralde guztietan bihar ze eguraldi egingo duen, ahoz eta ikurrak mapa gainean jarriz, iragarri beharko dute.

Bukatutakoan, talde txikiek, aurretik iragarritakoa, telebistako saio bat balitz bezala aurkeztu beharko dute talde osoan. Kontestuak eskatzen duen bezala, agurtu, gaia aurkeztu eta saioari bukaera eman beharko diote.

3.

Jarduera

Basoan



Entzumen

Edukiak

2.A. ariketakoak.

Prozedura

Bertatik Bertara saioko Aretxabaletako berria bitan edo hirutan ikusiko dute. Galdera bakarri erantzun beharko diote. Galdera aurretik irakurri eta ulertzea komeni da.

4.A

Jarduera



Irakurmena

Non dago Inski?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Narrazioa.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: aldizkaria.
 - Komunikazio-era: irakurgai errealia.
 - Gaia: ondoren esango duena aurreikusteko modukoa.
 - Eginkizunak: jasotako informazioaren berri ematea.
- **Adierazpide linguistikoa. NARRAZIOA:**
 - Gertaeren egilea (NORK/NOR)
 - NORI zuzendua
 - NON, NOIZ gertatua
 - NOLA gertatua.
 - Orain eta lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
 - Narrazioaren adierazleak.
 - Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
 - Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan...
 - Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean...
 - Norbaiten esanak, usteak adierazteko zeharbidea: -(e)la
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ariketa osoa bukatutakoan, ikasleek erantzuna Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolako Euskara Departamentua bidal diezagukete. Jasotakoen artean lehiaketa antolatuko dugu. Ikasturtea bukatuta 3 musika CD zozketatuko ditugu idatziko duten ikasle guztien artean. Talde txikian jarrita, txandaka testua irakurri, ulertu eta lau galderei erantzuna eman behar-ko diete. Egindakoan talde osoko zuzenketa egingo da.

4.B

Jarduera

Zer egin digu oraingoan?



Irakurmena

Edukiak

3.A. ariketakoak.

Prozedura

Ikasleek egin behar dutena ulertu dutela ziurtatu eta gero, Aizu! aldizkariko zientziari buruzko artikulutxoak irakurrarazi, talde txikian eta txandaka.

Bukatutakoan, bi galderei erantzun eta zuzenduko dira.

4.C

Jarduera

Zozketara!



Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Eskuitz informala.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: ikasle-aldizkari.
 - Komunikazio-kanala: eskutitza.
 - Erabilera-esparrua: aisialdikoak.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa.** NARRAZIOA.
 - Gertaeren egilea (NORK/NOR)
 - NORI zuzendua
 - NON, NOIZ gertatua
 - NOLA gertatua.
 - Orain eta lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
 - Narrazioaren adierazleak.
 - Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
 - Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan...
 - Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean...
 - Norbaiten esanak, usteak adierazteko zeharbidea: -(e)la
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Eskutitz bat idatzi beharko Nafarroako dute Urrutiko Hizkuntza Eskolako Euskara Departamentura. Inskiren aldrebeskeria aurkitu dutela adieraziz.

Nahi duenak, prestatu duen eskutitza sobre batean sartu, helbidea jarri eta bidal dezake lehiaketan parte hartu ahal izateko.

5.A Udaberriko programa Nafarroan

Jarduera



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: irudi bateko informazioa jasotzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: txanda laburreko elkarriketak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: gai arrunt bati buruzko iritziak trukatzeko.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
ez dira> [eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - adjetiboak: polita, ederra, interesgarria, erakargarria...
 - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

- Menpekoa
Konpletiboa: -(e)la
- Elementu diskurtsiboak.
Elkarrekintzak.
 - Gaiaren sarrera: laister izango dugu...
 - Gaia gidatu: gure ustez...
 - Amaitu: esan bezala, hortaz...

Prozedura

Ikasleek, hiruko taldeetan, udaberriko agenda aztertu eta Nafarroako herri bakoitzari dagokion beheko zerrendan jarri beharko dute (ze ikuskizun mota den).

5.B Jarduera

Nafarroa animatzen



Mintzamina

Ikus 5.A.

Prozedura

Orain, ikasleek ekaineko agenda prestatu beharko dute. Nahi dutena antolatuko dute baina herri bakoitzari zerbait eskaini beharko diote.

Bukatutakoan talde bakoitzarena talde osoari aurkeztuko diote.

N

Eta nire iritzia?

NOZIOAK

Helburua

Goiko koadrotxoetan agertzen diren esapideetan orokorrean eta batez ere elkarrizketan azaldu diren funtzioetan arreta jartzea.

Prozedura

Ikasleek koadrotxoan agertzen diren funtzioak irakurri eta ikasi eta gero, beharago dituzten elkarrizketak osatuko dituzte ematen zaizkien aukeren artetik erantzun egokia aukeratuz.


Klima eta geografia

Xabier eta bere auzokoa gimnasioan elkartu dira eta:

Xabier: Uste dut
bihar euria egingo duela...

Auzokoa: Bai zera!
Oker zaudela
uste dut, zerua izarrez beteta dago eta.

Xabier: Oker nagoela?, telebistan baietz esan dute eta aspaldian gehienetan asmatzen dute. Gainera badakizu zer dioen esaera zaharrak "Gau izarratua goiz izorratua".



Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hiru fitzak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

6

Lan eskaintza



Lan bila



1.A

Jarduera

Gustura lan egingo nuke, baina non?



Irakurmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Deskribapena. Testu-era: lan iragarkiak.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: publikoa eta formala.
 - Komunikazio-kanala: edozein egunkaritako lan iragarkiak.
 - Komunikazio-era: irakurgai errealeetan oinarrituta, euskaraz sortuak.
 - Gaia: esperientzia ez duten arren, ezaguna.
 - Eginkizunak:
 - A. Errealak izan daitezkeen lan iragarkiak ikusi eta zer esparrutako informazioa agertzen den (adina, ikasketak, lan esperientzia, sol-data...) ohartaraztea.
 - B. Lan iragarkietan eskatzen diren lanbideak zein diren ea ulertu duten konprobatzea, irudien asoziazioaren bitartez.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Deklinabidea: -rako kasua.
 - Aditza: “behar” inpersonala nahiz pertsonaduna.
 - Nominalizazioa: -(z)ea.
 - Lan munduaren gaineko eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

1.B

Jarduera

Lan iragarkien inguruan



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: lanbideei buruzko iritzia azaltzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: iritzi trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/bereiztea

Lan eskaintza

- /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
- il>[ll]
- in>[ñ]
- Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
- Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak
 - Modu-adberbioak: gaizki, ongi
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-Nori-Nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekota
 - Xedezkoa: -lako

Prozedura

Ariketa honen helburua gaian sartzea da, nolabaiteko berotze ariketa gisa dago planteatua. Aurrena bakarka lan iragarkiak irakurri ondoren, agertzen diren lanbideak irudiekin lotuko dituzte. Gero, iragarki hauek aitzakiatzat hartuta, taldeka lanbideez mintzatuko dira. Ondoren, iragarkietan agertu diren esparruak bereiziko dituzte BAI edo EZ markatuz.

Soluzioak:

1	2	3	4	5
B	E	D	A	C

	BAI	EZ
Lan esperientzia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Adina	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sexua	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egoera zibila	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Seme-alaben kopurua	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Ikasketak	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Soldata	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Elkarrizketa. Bi pertsonen arteko solasak.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (telefonoa).
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: informazio trukaketa.
 - Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak:
 - A. Ikasleak ohartaraztea lanpostu baterako langile baten profila egite-rakoan, kontuan hartzen diren eskakizunak zein diren.
 - B. Ikasleak lanpostu bati buruzko informazio gehiago jasotzeko era-biltzen diren adierazpideez konturaztea.
 - C. Hautagaien elkarrizketak entzun ondoren, taldeka lanpostu hori betetzeko egokiena zein den egokiena mintzaraztea.

Helburua ez da ikasleek elkarrizketak goitik behera ulertzea, ideia orokorra baizik. Gainera, hitz gakoak ulertuz, ulermenera-ko estrategiak praktikan jartzen ikasiko dute.

- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]0
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: lan munduaren gaineko eremu semantikoari dagozkionak.
 - Adjetibo kualifikatiboak.
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-Nori-Nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Bi entzungai dira. Lehenengoan, enpresa batekoek lanpostu baterako behar duten pertsonaren profila zein den jasoko dute ikasleek ondorengo kuadroan. Bigarren entzungaian, enpresa horretara deitu duten hiru hautagaien datuak jasoko dituzte. Bai lehenengo entzungaian bai bigarreanean komeni da lehenengo aldiz ikasleek transkripzioa irakurri gabe entzutea. Gero, bigarren aldiz, testua aurrean dutela entzungo dute.

Ikasleek entzungo dutena:

1. entzungaia

LANABES-ENPRESAKO SALMENTA ZUZENDARIA

Zuzendari Nagusiaren (Zuz) eta bere Pertsonal-buruaren (Pert) arteko elkarrizketa.

Pert: Egun on, Andoni!

Zuz: A, Arantxa, baita zuri ere. Zurekin hitz egin nahi nuke salmenta zuzendariaren lanpostua dela eta. Ba al duzu denbora pixka bat?

Pert: Bai, 15 minutu, gero bilera bat izango dut publizitate sailekoekin.

Zuz: Tira, goazen nire bulegora.

Zuz: Beno, kontua da salmenta zuzendariaren lanposturako iragarkia bihar bidali behar dudala. Pentsatu al duzu nolako pertsona nahi duzun lanpostu horretarako?

Pert: Bai, ea zer iruditzen zaizun. 30 urtetik gorakoa; beraz ez oso gaztea. Eta ezkongabea bada, hobe.

Zuz: Ezkongabea?

Pert: Bai, kontuan hartu behar duzu Kantabriatik Kataluniara mugitu behar duela. Ezkonduta ez badago eta familiarik ez badu, hobe.

Zuz: Gizonezkoa ala emakumezkoa?

Pert: Berdin da. Gainera hautagai gehiago etorriko dira sexu mugarik jartzen ez badugu.

Zuz: Eta ikasketak aldetik?

Pert: Zalantzan nago, ez dakit zer eskatu: goi-mailako tituluduna ala erdi-mailakoa, diplomatu bat.

Zuz: Nik uste dut unibertsitatetik pasatua bada, hobe izango dela. Are gehiago esango dizut: Ekonomikak edo Enpresa ikasketetan lizentziatu bat eskatu behar dugu. Formakuntza osoagoa dute, teorikoezia beharbada, baina seguru nago edozein arazori aurre egiteko gai direla.

Pert: Bai, hori egia da, baina erdi-mailakoek enpresa mundua barrutik ezagutzen dute, eta hori garrantzitsua da. Dena den, unibertsitario bat nahiago baduzu, aurrera. Baina hori bai, erabiltzaile-mailako informatika ezagutza (Microsoft Office eta Windows) izan behar du eta Marketing ikasketak ere bai, gaur egun ezinbestekoak dira salmenta alorrean lan egiteko.

Zuz: Oso ongi iruditzen zait. Eta euskara aldetik?

Pert: Titulua duena. Bizkaiko enpresa bat gara eta Nafarroan, Gipuzkoan eta Araban bezero euskaldunak ditugu. Euskaraz ongi dakiena behar dugu, zalantzarik gabe.

Zuz: Eta zer soldata pentsatu duzu?

Lan eskaintza

- Pert: 1.500 euro hilabetean gehi dietak. Ez dago gaizki.
- Zuz: Hasteko, ongi dago.
- Pert: Bi urteko esperientzia izan behar du antzeko lanposturen batean. Bestela badakizu zer gertatzen den, formakuntza enpresan bertan jasotzen dute eta produzitze-ko garaia ailegatzen denean, akabo. Habi goxoa utzi eta beste enpresa batera egiten dute hegan soldata hobe eskaintzen dietelako. Eta gu hemen, ahoa bete hortz!
- Zuz: Ba bai, arrazoi duzu.
- Pert: A, azkeneko gauza. Pentsatu dut sei hilabeteko kontratua egitea. Horrela jakingo dugu ea lanpostu horretarako balio duen. Balio badu, luzatuko diogu kontratua, eta balio ez badu, kalera.
- Zuz: Gogorra da, baina jendeak enpresa bat gobernatzea zer zaila den jakingo balu, beste iritzi bat izango luke. Eskerrak ez genuen Argentinan inbertitu!

Hona hemen soluzioa.

ADINA	30 urtetik gorakoa
EGOERA ZIBILA	Ez kongabea
SEXUA	Berdin da
IKASKETAK	Unibertsitate-ikasketak (Goi-mailakoak): Enpresa ikasketak edo Ekonomikak
EZAGUTZA OSAGARRIAK	Informatika eta Marketing-a
EUSKARA MAILA	Tituluduna
SOLDATA	1.500 euro hilabetean gehi dietak
ESPERIENTZIA	2 urtekoa
KONTRATUAREN IRAUPENA	6 hilabetekoa, luza daitekeena

2. entzungaia

SALMENTAREN ZUZENDARIA

1. hautagaia

Ring, ring, ring

- Pert: Bai, esan?
- Haut: "Bellota" enpresako pertsonal-saila?
- Pert: Bai, hau da.
- Haut: Salmenta-zuzendariaren lanposturako deitzen dut.
- Pert: A, bai, informazio gehiago nahi duzu, ezta?
- Haut: Bai, hori da.
- Pert: Zer ikasi duzu?
- Haut: Beno, berez biologoa naiz, biologia ikasi nuen Iruñean. Geroztik enpresa munduko zenbait Master egin ditut: Marketing-a eta enpresa-kudeaketa, besteak beste.
- Pert: Eta esperientziarik baduzu?
- Haut: Ez, zoritxarrez ez. Orain langabezian nago eta lana aurkitu behar dut nahitana-hiez, ezkontuta nago eta bi seme-alaba ditut eta.

- Pert: Bai, ulertzen dut.
- Haut: Eta soldata zenbatekoa izango da?
- Pert: 250.000 pezta hilabetean gehi dietak.
- Haut: Ederki, ongi da.
- Pert: Zure Curriculum Vitae bidali behar diguzu lehenbailehen, eta zerbait erabakitzen dugunean jakinaraziko dizugu.
- Haut: Konforme, eskerrik asko.
- Pert: Zuri, agur.

2. hautagaia

Ring, ring, ring

- Pert: Bai, zein da?
- Haut: Iragarkiarengatik deitzen dut. Hori pertsonal-saila al da?
- Pert: Bai, bai, salmenta-zuzendariaren lanposturako, ezta?
- Haut: Bai, horixe.
- Pert: Antzeko lanposturen batean ba al duzu esperientziarik?
- Haut: Bai, badut. 3 urtez lan egin nuen Perú-n, nire herriko enpresa batean. Gero enpresak porrot egin zuen eta Europara etorri nintzen.
- Pert: Barkatu atrebentzia, baina peruarra izanda, ongi hitz egiten duzu euskaraz, nola ikasi duzu?
- Haut: A, Gipuzkoako herri batera, Hernanira, etorri nintzen eta herrian integratu nahi nuen. Hemen jende guztiak euskaraz hitz egiten duenez, pixka bat ikasi dut.
- Pert: Ez duzu euskara titulurik izango?
- Haut: Ez, zoritxarrez ez. Klean ikasi dut, jendearekin hitz eginez, tabernetan...
- Pert: Bai, ulertzen dut. Eta soldatari buruz, zer pentsatu duzu irabaztea?
- Haut: Ez dakit, ez dut pentsatu. Lan egitearekin bakarrik konformatzen naiz.
- Pert: Ederki. Ongi da. Badakizu zer egin behar duzun: bidali zure Curriculum Vitae eta zerbait erabakitzen dugunean jakinaraziko dizugu.
- Haut: Ongi, eskerrik asko.
- Pert: Ez horregatik, agur.

3. hautagaia

Ring, ring, ring

- Pert: Bai, esan?
- Haut: Pertsonal-buruarekin hitz egin nahi dut, zuen iragarkia irakurri dut eta informazio gehiago nahi nuke.
- Pert: Bai, neu naiz pertsonal-burua. Zer jakin nahi duzu?
- Haut: Soldata, batez ere. Zenbat kobratuko dut?
- Pert: 250.000 hilabetean pentsatuta genuen, gehi dietak. Zer iruditzen zaizu?

Lan eskaintza

- Haut: Beno, egia esateko nik gehiago espero nuen. Gaur egun edozein etxek gastu handiak ditu eta soldata ere handi samarra izan behar da.
- Pert: Zer ikasi duzu?
- Haut: Informatika, baina ez nuen bukatu. 4.maila arte egin nuen. Berehala ezkondu nintzen eta utzi nion ikasteari. Orain seme-alabak handiak dira eta ez dute nire beharrik izaten, beno ez lehen bezala. Marketing, enpresa-kudeaketa eta pertsonal-burua izateko ikastaroak egin ditut. Hizkuntzak ere ikasten ditut. Hizkuntza Eskolan: frantsesa eta ingelesa.
- Pert: Eta antzeko lanposturen batean ba al duzu esperientziarik?
- Haut: Bai, bai, azkeneko 3 urteetan aritu naiz "Carrefour" supermerkatuak lanean, salmenta-zuzendari gisa. Baina gutxi ordaintzen zidaten, merezi nuen baino gutxiago, nire ustez, eta enpresa utzi nuen.
- Pert: Beno, zure Curriculum Vitae bidali eta zerbait erabaki bezain laster jakinaraziko dizugu.
- Haut: Ondo da. Agur.
- Pert: Agur, bai.

2.C

Jarduera

Hautagairik onena aukeratzen



Mintzamina

Ikus 1.B jarduera.

N.

Gogoan izan!

NOZIOAK

Helburua

Aurreko ariketako hautagaiak informazio gehiago lortzeko erabiltzen dituzten adierazpideak bildu ikasleek barnera ditzaten. Telefonoz edo aurrez aurreko lan elkarrizketetan erabiltzeko dira; beraz, ikastunitate honetako 5. jarduera burutu ahal izateko, lagungarri gerta dakizkieke.

3.

Jarduera

Ni naiz egokiena

Irakurmena

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Instrukzioa. Eskutitz formala (Curriculum Vitae).
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: bikoitza da: alde batetik ikasleek uler dezaten agiri horrek zertarako balio duen eta bestetik nola egituratzen den.
 - Igorle-hartzaile harremana: formala.
 - Komunikazio-kanala: Curriculum Vitae eskutitza.
 - Komunikazio-era: irakurgai erreal.
 - Gaia: ezezagun samarra.
 - Eginkizunak: Curriculum Vitae eskutitzaren paragrafoak hurrenkera zuzenean jarri behar dituzte. Horretarako eskutitz horren zatiak lotu behar dituzte parrafoekin. Bukatutakoan, eta zuzenduta dagoenean, eskutitz osoa kopiatu behar dute hurrengo orrian.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Deklinabidea: -rako.
 - Aditza: indikatibo lehenaldia
Nor
Nor-nork (Nor 3. denean)
 - Eskutitz mota horrek behar duen lexikoa eta zenbait formula.

Prozedura

Ezkerreko zutabean agertzen diren Curriculum Vitae eskutitzaren zati zenbakidunak lotu behar dituzte dagozkien letradun esaldiekin. Zuzentzeko hemen doakizu soluzioa.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
C	B	F	D	G	I	E	K	J	H	A

4.

Lan lexikoaz gogoeta egin dezagun!

Jarduera



Lexikoa

Helburua

Lan munduaren inguruan agertu diren zenbait hitzen esanahia argitu, bildu, ikasleek ikas ditzaten.

Prozedura

Ezkerreko zenbakidun hitz edo esaldiak dagozkien eskuineko definizioekin lotu behar dituzte. Hona hemen soluzioak:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E	G	B	I	F	J	A	D	H	C

5.A

Ekin lanari!

Jarduera



Mintzamena

MINTZAMENA**Edukiak**

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazio berria eskatu eta ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: elkarreagina hasieran erantzun soiletara mugatuko da. Geroago, erantzun horiek zabaltzen joango dira. Azkenik, elkarrekintzako galde-erantzunetan parte hartu ahal izango du.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: benetakoa. Ez duenak duenari eskatu edo ematea.
 - Gaia: ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]

- Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[etzira]
- Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak
 - Modu-adberbioak: gaizki, ongi
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Baiezko eta ezezko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Xedezkoa: -lako

5.B

Ekin lanari!

Jarduera



Idazmena

Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Deskribapena: lan iragarkiak eta Curriculum Vitae eskutitza.
- **Kontestua.**
 - Idazketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: ikasle-ikasle.
 - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
 - Gaia: ezagun samarra.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Deklinabidea: -rako kasua.
 - Aditza: “behar” inbertsonala nahiz pertsonaduna.
 - Indikatibo lehenaldia:
 - Nor
 - Nor-nork (Nor 3. denean)
 - Curriculum Vitae eskutitz mota honek behar duen lexikoa eta zenbait formula.
 - Nominalizazioa: -t(z)ea.
 - Lan munduaren gaineko eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

Prozedura

1. Ikastunitatean agertutako eruedetan oinarrituta, lan iragarki bana asma eta idatz deza-tela. Bukatzen dutenean, gelako horman edo zuek esaten duzuen tokian jarri.
2. Hurrengo pausua ikastaldea bi taldetan banatzea da:
A taldea: lan bila dabiltzan hautagaiak balira bezala, gelako hormako iragarkiak ikusi eta gustukoena aukeratu ondoren, bakoitzak beste taldeko ikasleren bati emango dio eta informazio gehiago lortzeko elkarrizketatuko da.

B taldea: enpresarioak bailiran, jasoko dituzte beste taldekoen lan iragarkiak eta banaka elkarrizketatuko dira hautagaiekin. Bukatutakoan, A taldekoei Curriculum Vitae izenekoa egiteko esango diete.

Oharra: bi taldekoek elkarrizketa prestatzeko adinako denbora izango dute.
3. Bakarka Curriculum Vitae eskutitza prestatzeari ekingo diote.
5. Dena bukatutakoan rolak aldatu. Lehen A taldea osatzen zutenak, orain B taldekoak izango dira eta alderantziz.

Arian, arian, edozer zulatzen da


**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen... jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hirunaka jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.



7

Aisia: telebista eta liburuak

Denbora pasa nahian

1.A

Jarduera



Entzumena

Hirukiak

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Telebistako ipuinak.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: ipuinaren izena asmatzea.
 - Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (telebista).
 - Gaia: ondoren eskatuko dena eurreikusteko modukoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: egindako galderari erantzun.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
ez ba >[ezpa]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak.
 - Adjetibo kualifikatiboak.
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nori (nor 3.)
 - Nor-Nork (nor 3.)
 - Aspektua: burutua, ez burutu puntukaria, etorkizuna.
 - Baiezko, ezezkoeta galderazko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Konpletiboa: -(e)la.

Prozedura

Ariketari dagokion zatitxoa bi aldiz jarriko da, ipuinaren tituloa esan artekoa. Ikasleak bakar-bakar erantzungo dio bere fitxan agertzen den galdera bakarrari. Gero, hiruko taldean ea asmatu duten konprobatu beharko dute.

Erantzuna: “Oihaneko liburua” da.

Nahi bada eta ipuinak klasean interesa piztu badu, ipuin osoa jar daiteke ariketa egin eta gero.

1.B

Jarduera



Idazmena

Sorginari...

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Eskutitz informala.
- **Kontestua.**
 - Idazketaren xedea: proposamena egitea.
 - Igorle-hartzaile harremana: ikasle-ipuineko pertsonaia.
 - Komunikazio-kanala: eskutitza.
 - Erabilera-esparrua: aisialdikoak.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoak. DESKRIBAPENA.**
 - Adjetiboak kualifikatiboak. Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Aditza.
 - Denbora: orainaldia
 - Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea adierazteko.
 - Xedea: -t(z) eko
 - Erlatiboa: -e(n)
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Hiruko taldeak egingo dira. Bakoitzak ipuin bat (nahi duena), idatziz, laburtuko du: izena, nor den protagonista, zer gertatzen den, nola bukatzen den, jar dezake.

Bakarka idatzi eta gero, bakoitzak egin duena bere taldeari aurkeztu beharko dio.

N

Irakurtzea

Helburuak

Irakurketaren inguruan erabiltzen diren adierazpideak erabiltzea.

Prozedura

Ikasleek ariketa bakarka egingo dute. Bukatutakoan, hiruko taldeetan konparatu eta irakaslearen laguntzaz zuzenduko da.

2.

Jarduera

Durangoko azoka



Irakurmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: aldizkaria.
 - Komunikazio-era: irakurgai erreala.
 - Gaia: ondoren esango duena aurreikusteko modukoa.
 - Eginkizunak: jasotako informazioaren berri ematea.
- **Adierazpide linguistikoa. DESKRIBAPENA.**
 - Adjetiboak: kualifikatiboak
Atziki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza.
Denbora: orain eta lehenaldia
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko:
Xedea: -t(z) eko
Erlatiboa: -e(n)
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ikasleek, hiruak jarrita, fitxa bana izango dute.

Bakoitzak bere liburuari buruzko datuak irakurri eta ulertuko ditu.

Bukatutakoan, fitxari buelta eman eta bere irakurketari buruzko galderak beste ikasle batek egingo dizkio. Bakoitzari, bere fitxan, hurrengo bi lanak eskatuko zaizkio:

1. Dagokion liburuari buruzko informazioa irakurri eta ulertzea.
2. Beste ikasleari (fitxan izango du nori, A, B edo C-ri galdetu behar dion) fitxan dituen galderak egitea. Horrela, haiek izango dira irakurriaren ulermenaren balorazioa egingo dutenak. (Galdetzen duenak bere galderen erantzunak ere baditu).

3.

Jarduera

Nire liburuak



Mintzame na

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzame na.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: irakurritakoa labur-labur kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: gai bati buruz informazioa ematea.
 - Gaia: ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izenordainak: ni, zu, gu, zuek (nik, zuk...)
 - Galdetzaileak: nor, zer, non, noiz, zein, zenbat,... (deklinatuz)
 - Adberbioak.
 - modu-adberbioak: gaizki, ondo, itxuraz, poliki, txarto...
 - iritzi-adberbioak: agian, beharbada, dudarik gabe,...
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak.
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

- Menpekoa:
 - Konpletiboa: (e)la
 - Xedezkoa: -(e)lako
- Elementu diskurtsiboak.
 - Erantzun laburrak.
 - Zalantza adierazteko zerbaiti buruz:
“Ez dakit ba”, “Baliteke”, “Ez nago seguru”...
 - Iritzia azaltzeko:
“Oso ona/ondo”, “Benetan ederra”, “Ez hain ona”...
 - Betelana egiteko formulak:
“Bueno”, “Ah”, “Zera”, “Nola esan?”, “Ba...”, “Zera...ba”...

Prozedura

Berriro hirunaka, bakoitzak azalpen bat egin beharko du.

Ikasleak irakurri dituen liburuen artean, bat aukeratu eta horren berri eman beharko dio taldeari: izena, kokatu (non gertatzen den, zein diren pertsonaiak...), zer gertatzen den, nola bukatzen den.

Aurretik minutu batzuk eman bakoitzak zertaz hitz egin behar duen pentsatzeko eta txandaka, hitz egiten hasiko dira.

Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hirunaka jarri eta hiru fitxak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

8

Aisia: zinema



Beti geratuko zaigu Paris



1.

Jarduera



Entzumena

...eta asteburu honetan, zer?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Elkarrizketa. Bi pertsonen arteko solasak.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era. Interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: zuzenean.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: ideiak proposatu, baztertu, onartu.
 - Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak:
 - A. Ikastunitate osoan zehar agertzen den fikzioaren muinaz (Donostiako bidaia) ohartaraztea.
 - B. Kasu honetan, asteburu baterako plan baten aurrean, denok ideiak proposatu beharko ditugula konturuaraztea.
 - C. Ideia horiekiko interesa edo desinteresa nola adierazten den jakinaraztea.
 - D. Lagunen arteko elkarrizketa arrunt batean ikasleak informazioa jaso duen ala ez egiaztatzea.

Helburua ez da ikasleek elkarrizketa goitik behera ulertzea, ideia orokorra baizik. Gainera, hitz gakoak ulertuz, ulermenerako estrategiak praktikan jartzen ikasiko dute.

- **Adierazpide linguistikoak.**

- Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
- Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: lagunarteko elkarrizketetan erabiltzen dena.
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Ahal izan
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Aurrena deus ere irakurri gabe, entzun dezatela entzungai osoa. Gero, galderen bitartez, elkarrizketa horren zergatia zein den uler dezaten saiatuko gara. Kontestuaz jabetzen direnean, ikasle orriari dituzten galderak irakurriko dituzte eta, entzungaia berriro aditutakoan, erantzungo dute. Behar izanez gero edo ea asmatu duten ala ez konprobatzeko, berriro jar daiteke entzungaia testua aurrean dutela.

Ikasleek entzungo dutena:

Entzungaia

Julian eta Roberto lagunak dira. Iruñekoak dira eta 19 urte dituzte. Julianek enpresa-ikasketak ikasten ditu Iruñeko unibertsitatean. Roberto, berriz, mekanikoa da. Txiki-txikitatik ezagutzen dute elkar, auzo berean bizi dira eta.

Gaur asteartea da eta biek lana bukatu eta gero, etxe ondoko taberna batean daude, hurrengo astebururako planak egiten.

- J. Aizu Roberto, asteburu honetan zer egiten ahal dugu? dagoeneko nazkatuta nago; beti gauza bera egiten dugu.
- R. Nahi baldin baduzu, eskurtsio bat egiten ahal dugu mendira. Aspaldian ez gara mendian izan. Zer iruditzen zaizu?
- J. Ez dakit ba... Gainera eguraldi txarra egingo duela esan dute telebistan. Eta euria egiten badu, ez da batere komodoa mendian ibiltzea.
- R. Orduan, partxisean edo ajedrezean jolasten ahal gara. E, edo Trivial partida bat.
- J. Ez, ez... hori ere ez zait gustatzen. Zergatik ez gara pintura erakusketa bat ikustera joaten?
- R. Hara! zer, intelektualarena egiten ala? Utzi, utzi. Ez zait batere gustatzen pintura esposizioak ikustea. Aspertzen naiz.
- J. Bueno, bestela taberna honetan futbola ikusten geratzea ez dago gaizki. Paulari, Kikeri eta besteei deitzen ahal diegu eta hemen bertan Osasunako partidua ikusten ahal dugu, zerbeza batzuk edaten ditugun bitartean.
- R. Ez pentsa, ez da ideia txarra. E, aizu, eta zergatik ez gara zinemara joaten?
- J. Bai, hori da. Oso ondo! Noizean behin pentsatzen duzu, e? baina Iruñean geratu beharrean, Donostiara joaten ahal gara. Gainera iraila da eta Donostiako zine-festivala dago.
- R. Oso ongi. Bai eskurtsio polita! Baina Penélope Cruz aktoresari nik eskatuko diot autografoa. Hau emakumea!

N

Egin dezagun gogoeta!

Helburua

Aditu duten entzungaia funtzio jakin batzuk adierazten dituzten esaldiak agertu dira. Hori da gogoetagai duguna. Ikasleek ohartu behar dute zein esaldi erabiltzen den iritzia eskatzeko, zein proposamenak egiteko...

	IRITZIA ESKATZEKO	PROPOSAME- NAK EGITEKO	IDEIA GUSTATU ZAIZU	IDEIA EZ ZAIZU GUSTATU
Zer iruditzen zaizu?	X			
Orduan, partxisean edo ajedrezean jolasten ahal gara.		X		
Zergatik ez gara pintura erakusketa bat ikustera joaten?		X		
Bai, hori da. Oso ondo!			X	
Ez dakit ba... gainera eguraldi txarra egingo du.				X
Zergatik ez gara zinemara joaten?		X		
Ez,ez,ez... hori ere ez zait gustatzen.				X
Oso ongi. Bai eskurtsio polita!			X	
Hara! Zer, intelektualarena egiten, ala?				X

2.

Jarduera



Irakurmena

Edozein izaten ahal da Roberto eta Julian

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Instukzioa. Testu-era: argibideak.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jaso eta ulertzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: formala.
 - Komunikazio-kanala: ikastunitatea segitu ahal izateko beharrezkoak diren argibideak.
 - Komunikazio-era: irakurgai erreal.
 - Gaia: ezaguna.
 - Eginkizunak: Arretaz irakurtzea, gainerako jardueretan zer burutu beharko duten jartzzen baitu. Gidoi moduan dago planteatua. Hemendik aurrera binaka lan egingo dute; izan ere erabakiak hartu behar dituzte elkarrekin negoziatuz. Ulertu behar dute, egiten dutena egiten dutela, elkarrekin burutuko dutela.

3.

Jarduera



Idazmena

Donostian ohe goxo bat bagenu?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Deskribapena. Lagunarteko eskutitz informala.
- **Kontestua.**
 - Idazketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
 - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
 - Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Dituzten baliabideak.

Prozedura

Lagun batzuei eskutitz gidatua idatziko diete, ahal bada 1. Jardueran (ideiak proposatzeko, iritzia emateko...) atera diren zenbait adierazpide erabiliz.

4.

Jarduera



Irakurmena

Itsasoaren usaina

1. Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Instukzioa. Testu-era: foiletoa (autobusetako benetako ordutegiak).
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jaso eta ulertzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: formala.
 - Komunikazio-kanala: foiletoak.
 - Komunikazio-era: irakurgai erreal, euskarara itzulia.
 - Gaia: ezagun samarra.
 - Eginkizunak:
 - A. Foiletoak ulertzeko beharrezkoak diren baliabideak (orduak, maiztasuna...) erabilaraztea.
 - B. Kotxea edo autobusa hartzea erabakitzea.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Deklinabidea: “nondik”, “nora”, “non” kasuak bai denborari bai lekuari dagozkienak.
 - Aditza: “nahi izan”, “nahiago izan”.

Prozedura

Kontua da, ikasleak binaka daudela, zer komeni zaien (kotxea ala autobusa) erabakitzeke gai izatea. Horretarako duten informazioa kontuan hartuz, elkarri galdetuz eta negoziatuz, zirt edo zart egin behar dute.

Jardueraren bukaeran agenda bat dago erabaki dutena apuntatzeko. Agenda hori lagungarri egingo zaie ikastaldearen aurrean egin duten bidaia fiktizio horren berri ematen dutenean.



Mintzamina

2. Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: kotxez ala autobusez joango diren erabakitzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: iritzi eta proposamen trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**

- Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
- Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak
 - Modu-adberbioak: gaizki, ongi
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Xedezkoa: -lako

Prozedura

Ikasle orrietan dituzten datuez baliatuta, erabaki dezatela nola iritsiko diren Donostiara.

5.A

Jarduera

Bidaiaren helburua: zinema



Irakurmena

1. Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Narrazio laburrak. Testu-era: pelikuletako laburpenak.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jaso eta ulertzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: formala.
 - Komunikazio-kanala: edozein egunkaritako filme-laburpenak.
 - Komunikazio-era: egunkaritik hartutako irakurgai errealak.
 - Gaia: ezaguna.
 - Eginkizunak:
 - A. Filme-laburpen errealetan oinarrituta, ea orrian agertzen diren pelikulak zer generotakoak diren (komedia, drama...) bereizten duten.
 - B. Filme-laburpen horiek idatiz nahiz ahoz egiten ahal dira. Horregatik 2.entzungaian irratsaio batetik hartutako zine-kritikak hartu ditugu. Galdera erraz batzuen bidez, neurtuko dugu ea ulertu duten ala ez.

Prozedura

Aurrena egunkarietako filme-laburpenak irakurri behar dituzte, haietatik bi aukeratzeko. Elkarrekin negoziatuko dute zer filme ikusiko dituzten. Normalean zine-generoak ezagutzen dituztenez, irizpide horren arabera aukeratuko dituzte filmeak. Beraz, puntu hori argitzera dator "aukeratzen laguntzeko" izeneko jardueran.

5.B Jarduera

Aukeratzen laguntzeko



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: filmeak aukeratzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: iritzi trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.** Ikus 4. jarduera

Prozedura

Pelikulak aukeratzekoan zer irizpideri heltzen dioten esango dute ahoz, beti ere binaka, eta bide batez 5.C jardueran agertzen diren ahozko filme-kritikak ezagutzeko berotze ariketa gisako zerbait egingo dute. Hona hemen soluzioak (subjeto xamarren diren arren).

1	2	3	4	6	5	7	8
B/H	A/D	E/G	E/G	C	A/D	B/H	F

5.C

Jarduera



Entzumena

Filme-kritikaria naiz, pasa naiteke?

5.C jardueran zine-kritikak entzungo dituzte eta ulermen maila konprobatzeko, galdetegi bati erantzungo diote X batez erantzun zuzenak markatuz.

Aurreko jardueran bezala, hemen ere agenda jarri dugu, aukeratu dituzten pelikulak apuntatzeko.

6.

Jarduera



Mintzamena



Idazmena

Baina dena ez da zinema....

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: ideiak proposatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: bikote barruko elkarreragina.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.** Ikus 4. jarduera

Prozedura

Kontua da astebururako planak egitea, egin nahi dituzten ekintzak elkarri planteatuz, onartuz edo atzera botaz. Garrantzitsua da haien arteko adostasuna eta negoziazioa. Aurreko jardueran bezala, agenda bat dago egingo dituzten eginkizunekin bete dezaten.

7.

Jarduera



Mintzamena

Kontuak eskatzeko garaia

Prozedura

Azkeneko jarduera honetan bikote bakoitzak ikastaldeari egin duten bidaia fiktizio horren berri emango dio. Hitz egiten hasi aurretik, komenigarria da bikote bakoitzari denbora pixka bat ematea gidoi moduko zerbait egiteko.

Agian bikote guztiek azalpena saio berean ematea aspergarri gerta daitekeenez, txandak antola daitezke saio desberdinetan.

Azaltzen ari direla, biek hitz egingo dute.

Nahi izanez gero, azalpen horiek bideoz graba daitezke, askotan ikasleek estimatzen dituzte gelako ohiko dinamika apurtzen duten ekintzak.

Arian, arian, edozer zulatzen da

ZER
IKASI
DUT?

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen ... jakitun den heinean, arrakastatsua da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hiru jarrita, beteko dute azken fitxa.

Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.



9

Aisia: musika

Bazen behin... musika!

1.

Jarduera



Entzumena

Bazen behin... musika!

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Bakarrizketa. Pertsona baten narrazioa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era. Interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: kaseta.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: irratian ager daitekeen narrazioa.
 - Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak:
 - A. Ikastunitate osoan zehar jorratuko den gaia zein den ohartaraztea.
 - B. Ikasleen bizimoduan musikak norainoko garrantzia duen neurtzea.
 - C. Narrazio txiki hau entzun eta gero, ikasleek informazio orokorra jaso duten ala ez egiaztatzea.

Helburua ez da ikasleek narrazioa goitik behera ulertzea, ideia orokorra baizik. Gainera, hitz gakoak ulertuz, ulermenerako estrategiak praktikan jartzen ikasiko dute.

- **Adierazpide linguistikoak**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: narrazioetan erabiltzen direnak.
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Aurrena deus ere irakurri gabe, entzun dezatela entzungai osoa. Bertan musikaren inguruko sarreratxo bat agertzen da eta gero “Txoririk ez zuen lurraldea” izenburua duen ipuina. Jarraian datozen bi zatiak entzundakoan, berotze ariketa gisakoa egingo dute lehendabizi. Bigarrenik ipuinaren gaineko ulermenari ekingo diote. Ikasleek, kontestuaz jabetzen direnean, ikasle orrian dituzten galderak irakurriko dituzte eta, entzungaia berriro aditutakoan, erantzungo dute. Behar izanez gero edo ea asmatu duten ala ez konprobatzeko, berriro jar daiteke entzungaia testua aurrean dutela. Gutxienez testua bi aldiz entzutea komeni da.

Ikasleek entzungo dutena:

Entzungaia “Bazen behin.... musika!”

Zaila da bizitza musikarik gabe imajinatzea. Nolakoa ote litzateke? aspergarria, graziarik gabea, isila... Musika nonahi dago, edozein tokitan. Denboran atzera egiten badugu, gure txikitako oroitzenak musikarekin lotuta daudela ikusten dugu. Hiru edo lau urterekin eskolan ikasten genituen kantak betiko geratu dira memorian, eta nekez ahazten dira. Orain agian ez, baina, ni txikia nintzela, multiplikatzeo tablak kantatuz ikasten nituen. Eta musikaz ari garela, ez zait ahaztu behin eskolan irakurri genuen ipuin bat “Txoririk ez zuen lurraldea” izenburua zuena.

Ipuin honetan herri batean Errege bat bizi zela kontatzen zen. Oso genio txarra zuen beti Errege honek eta ezin zuen inondik inora jasan txoriek beren kantuekin egiten zuten musika, ezta jendea pozaren pozez txistuka ibiltzea ere. Hainbeste gorrotatzen zuen txorien kantua, txoriak bota baitzituen bere herritik. Egun batetik bestera herria isil-isilik geratu zen, eta herri horretako jendeak harrিতa begiratzen zuen zerura txorien bila, ez baitzekien txoriek zergatik ez zuten kantatzen ezta non zeuden ere.

Herritarrek gero eta okerrago eramaten zuten txoriek utzitako isiltasuna eta izaera ere ozpindu zitzaizen zeharo. Zuhaitzak beren adarrak eta hostoak txukuntzen hasi ziren txoriak noiz agertuko zain, bertan kabi goxoak egiteko.

Egun batean zuhaitzak enteratu ziren Erregearen erabakiaz. Hortik aurrera ezin izango zituzten txoriak, beren lagun maiteak, ikusi ezta beren musika ederra entzun ere. Orduan zuhaitzik zaharrenak batzarre batera deitu zituen gainerako zuhaitzak. Luze eta zabal mintzatu ondoren, protesta bat egingo zutela erabaki zuten: Erregeak berriro txoriak ekarri arte ez zuten ez historik ez lorerik hazten utziko, eta pixkanaka-pixkanaka hiltzen joango ziren.

Herriko jendea, zuhaitzen erabakia jakin zuenean, Erregearen jauregiaren aurrean bildu zen eta oihuka eta txistuka hasi zen Erregeari desadostasuna helarazteko. Erregeak orduan haserre bizian soldaduei aizkora hartu eta herriko zuhaitz guztiak mozteko agindu zien. Haizea ere kezkatuta zegoen txorien oso laguna zelako eta txistuka, haizeak bakarrik egiten dakien musikarekin, txoriei kontaktu zien Erregearen plan maltzurra. Berehala agertu ziren txoriak zeruan, hegaldaka, gora eta behera, ezkerretik eskuinera, eskuinetik ezkerredera. Zeruan zerbait egiten ari zirela ematen zuen eta hala, segundu gutxi barru, zeruan, hodei artean, irakurtzen ahal ziren txoriek osatu zituzten letrak: “eutsi, lagunok, zuekin gaude”. Herriko plazan bilduta zegoen jendea txaloka hasi zen txoriek egin zituzten letrak ikusi eta gero, baina orduan eztanda soinu latz eta gogor batzuk entzun ziren hemen, hor, han... eta txoriak erortzen hasi ziren hemen, hor, han... hilik, soldaduen eskopeten aginduari kasu eginez.

2.A

Jarduera

Jolas egiteko garaia



Irakurmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Deskribapena. Testu-era: entziklopedietan aurki daitezkeenak.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa ulertzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: formala.
 - Komunikazio-kanala: idatzia (entziklopedia).
 - Komunikazio-era: irakurgai erreal (moldatua).
 - Gaia: ezagun samarra.
 - Eginkizunak: Soinu tresnen definizio batzuk arretaz irakurri beharko dituzte, ea asmatzen duten zein diren definizio horien atzean ezkututzen diren instrumentuak. Soinu tresna horien izenak nahas-mahas motako jokuan aurkitu behar dituzte.

Soluzioak:

1	B	H	O	E	P	I	K	U	X	L	J	E	A	Z	G	5
	A	I	D	E	S	S	T	R	E	N	O	F	A	Z	K	
	J	A	O	M	I	T	A	K	O	R	D	E	O	I	A	
	G	A	T	L	O	X	I	L	O	F	O	N	O	R	I	
	B	O	Z	A	O	X	T	A	N	B	O	R	R	A	L	
2	Z	O	Z	O	A	N	T	B	I	O	L	I	N	A	K	3
	T	U	A	R	R	A	T	I	G	K	R	O	T	A	L	
	K	L	A	S	I	K	E	X	M	A	R	A	K	A	K	
	E	I	T	R	O	B	X	Z	E	A	R	T	U	P	A	
	A	B	U	F	A	L	O	R	K	L	R	O	P	G	F	
3	P	A	N	D	E	R	O	A	K	A	O	N	A	I	P	4
	O	R	F	E	O	I	A	K	T	X	A	A	D	E	R	
	L	S	A	X	O	F	O	I	A	T	R	O	N	P	A	
	I	T	E	D	O	L	K	J	O	E	A	B	N	X	T	
	Z	E	H	A	R	K	A	K	O	F	L	A	U	T	A	

2.B

Euskal soinu tresnak ezagutzen

Jarduera



Irakurmena

Aurreko ariketarako emandako azalpen guztiek balio dute honetarako. Ariketa honen helburua Euskal Herriko instrumentutzat jo daitezkeenak ezagutaraztea litzateke. Oraingo honetan, soinu tresnen definizio eta irudiak beheko izenekin parekatu behar dituzte.

Erantzunak:

1	2	3	4	5	6	7
F	A	C	B	E	D	G

3.

Musika pixka bat entzun nahi?

Jarduera



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: musika mota diferenteak noiz entzuten dituzten adieraztea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: erantzun laburrak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: informazio trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak

- Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa
 - Xedezkoa: -lako
 - Denborazkoak: -(e)nean

Prozedura

Kaset batean musika mota desberdinetako zati batzuk entzungo dituzte. Egin beharko duten lehenengo eginkizuna musika puska horiek zer estilotakoak diren identifikatzea da. Argazkiekin lotu besterik ez dute egin behar. Bigarren eginkizuna musika klase horietako bakoitza noiz entzuten duten esatea izango da. Lanketa hau noiz galdetzaileari erantzuten ikasteko dago prestatua. Musika mota hori ez badute entzuten, esan dezatela zergatik. Informazioa binaka lortuko dute, gero launaka...

Erantzunak:

A	B	C	D	E	F	G	H
8	3	5	4	2	6	7	1

N

Gogoan izan!

NOZIOAK



1. Entzumena: bi laguneren arteko elkarrizketa
2. Egin dezagun gogoeta
Nozioak

Entzumena

Helburua

Aditu duten entzungaiaren gonbidapena adierazten duten esaldiak agertu dira. Hori da gogoe-tagai duguna. Ikasleek ohartu behar dute zein esaldi erabiltzen diren gonbidapena egiteko.

Prozedura

Aurrena ulertzeko behar adina aldiz entzungo dute elkarrizketa (komeni da testua irakurri gabe entzutea). Gero entzungaiaren transkripzioa duen fotokopia banatu eta, testua aurrean dutela, esan dezatela gonbidapena nola dagoen adierazita. Azkenik funtzio hori erakusten duten esaldiak (eskeman laburbilduak) azaldu.

Entzungaia

Iñaki eta Martaren arteko elkarrizketa

Ring, ring, ring, ring.....

Marta: Bai, nor da?

Iñaki: Kaixo, Iñaki naiz, institutukoa.

Marta: A, bai. Zer nahi duzu, Iñaki?

Iñaki: Zera... deitu dizut esateko bihar etxean festa bat antolatu behar dudala eta etortzera gonbidatuta zaudela.

Marta: Eskerrik asko, baina etzi euskara azterketa bat dut Hizkuntza Eskolan, eta ikasi baharra daukat. Sentitzen dut, benetan.

Iñaki: Bai, baina mesedez, zergatik ez zara nire etxera etortzen? oso ongi pasako dugu. Tarta berezi bat egingo dut zuretzat.

Marta: Benetan estimatzen dut, Iñaki, baina esan dizut ezin dudala.

Iñaki: Hainbeste gustatuko litzaidake zu nire festara etortzea....

Marta: Astuna zara, gero! Goiz samar bukatzen badut, joango naiz, baina ez da segurua.

Iñaki: Orduan, etorriko zara nirekin? Hau poza! Ez zara damutuko. Ikusiko duzu. Zuri gustatzen zaizuna prestatuko dut. Bueno, orduan bihar arte, arratseko 8,00etan.

Marta: Konforme, baina gogoratu ez dela segurua. Agertzen ez banaiz, ez esan ezer. Hau gurutzeta!

Iñaki: Ederki, zure zain egongo naiz. Agur.

4.

Jarduera

Gustukoa baduzu, etorri



Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Deskribapena. Lagunarteko eskutitz informala.
- **Kontestua.**
 - Idazketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
 - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
 - Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Ditutzen baliabideak. Batez ere gonbidapena adierazteko ikusi berri dutenak.

Prozedura

Lagun bati eskutitz gidatua idatziko diote, ahal bada “Nozioak” atalean (gonbidapena egiteko) atera diren zenbait adierazpide erabiliz.

5.

Jarduera



Mintzamina

Azkenean hemen dira gure idoloak!

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamina.
- **Testua.** Elkarrizketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa eman eta lortzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: informazio trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.** Ikus 3. jarduera

Prozedura

Rol joku bat proposatzen da. Hasieran binaka jarriko dira ikasleak. Bikote bakoitzak musika talde bat aukeratu du eta talde horren izenik aipatu gabe, klaseko gainerakoei esateko pista moduko batzuk prestatuko ditu. Jokuaren helburua besteek taldearen izena asmatzea izango da.

Bukatu eta gero, launaka jarriko dira eta imajinatuko dute beren gogoko musika taldea hor dagoela. Bikote batek kazetarien papera egingo du; beraz nahi dituzten galderak prestatuko dituzte musikoei egiteko. Beste bikoteak musika taldearen papera egingo du: kazetarien galderei erantzungo die. Amaitzen dutenean, paperak trukatu dituzte.

Arian, arian, edo zer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen ... jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hirunaka jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.

10


Aisia: bidaiak

NEW YORK
5.491Km

SOUTH POLE

BUENOS AIRES
7.920Km

Munduan zehar



1.

Jarduera



Irakurmena

Asmatu

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.
- **Testua.** Deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: publikoa.
 - Komunikazio-kanala: aldizkaria.
 - Komunikazio-era: irakurgai erreala.
 - Gaia: ikasleen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Eginkizunak: jasotako informazioa ulertu eta ze herri deskribatu den asmatu.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Adjetiboak: kualifikatiboak.
 - Aditza: denbora: orainaldia.
 - Baldintza erreala: -ba.
 - Eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

Prozedura

Hirunaka jarrita, testua ozenki eta txandaka irakurriko dute. Gero, talde bakoitzak uste duena talde osoari aurkeztuko dio.

Erantzuna: Amsterdam



Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Kontaketa.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: oporrak pasatzeko plan bat prestatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: txanda laburreko elkarrizketak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: informazio trukaketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
ez ba >[ezpa]
 - Alderdi morfosintaktikoa.
 - Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste, eder, interesgarri, erakargarri, zaratatsu, baketsu
 - Modu-adberbioak: gaizki, ondo poliki, primeran...
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Aspektua: Geroa
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpeko esaldiak:
 - konpletiboa: -(e)la
 - kausala: -(e)lako
 - Elementu diskurtsiboak.
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak.
 - esandakoarekiko adostasuna azaltzeko: bai, hala da, bistan dago
 - ezadostasuna azaltzeko: ez dut uste, ez nago konforme.
 - zalantza adierazteko: ez dakit, ez nago seguru.
 - iritzia azaltzeko: oso ona/ondo.
 - bete lana egiteko formulak: bueno, ah, zera, nola esan ba...

Prozedura

Hirunakako taldeetan, haiek dituzten baliabide eta mota honetako informazioa emateko behar den ezagupenaz baliatuz, bidaia bat prestatuko dute (geroaldia erabili beharko dute). Bukatutakoan, talde txiki bakoitzak bere bidaia talde osoari aurkeztuko dio.

N

Gipuzkoako herri txiki batera... kostaldera!

Helburuak

Galdera eta erantzunak parekatuz deklinabeen arreta jartzea.

Prozedura

Galderei dagozkien erantzunak zein diren asmatu eta laukitxoak bete behar dituzte.

Erantzunak:

NOZIOAK

1

2

3

4

5

6

F

D

E

A

C

B

3.

Jarduera



Idazmena

Gu ere Gipuzkoako kostaldera joaten bagara?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.
- **Testua.** Plan baten deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Idazketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
 - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
 - Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa.**
 - Ikasleek dituzten baliabideak.

Prozedura

Ikasleak, bakarka, hiru egunetako plana idatziko du. Aurreko ariketan atera den informazioa ere erabil dezake. Bukatutakoan, binaka jarri eta bakoitzak idatzitakoa ondokoari pasatuko dio irakurtzeko. Kontuan hartuta hiru egun horiek pasatzera elkarrekin joango direla, bieta-ko bat aukeratu beharko dute, adostasun batera ailegatuz.

Bukatutakoan, talde txikietan egin dena talde osoan azal daiteke.

4.

Jarduera



Entzumena

Bidaia basatiak

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.
- **Testua.** Telebistako erreportaia.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (telebista).
 - Gaia: ondoren eskatuko dena aurreikusteko modukoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: erreportaia entzun-ulertu eta galderei erantzun.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa.
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea

- /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
- il>[ll]
- in>[ñ]
- Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
- Alderdi morfosintaktikoa.
 - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: aditzaren forma arruntak.
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua.
 - Juntadura
Emendiozkoa: eta
Hautakaria: edo
Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekota
Konpletiboa: -(e)la
kausala: -(e)lako
- Elementu diskurtsiboak.
Ez hitzezko kodeak: irudiak, keinuak...

Prozedura

Ikasleek bideo zinta entzun-ikusiko eta gero, galderei erantzungo diete. Bukatutakoan zuzendu.

Erantzunak:

1 Afrikako ze herrialdetara bueltatu dira gure protagonistak?

ETIOPIARA

2 Oraingoan, zenbat itzuli dira Addis Abebara?

BOST ITZULI DIRA

3 Zein animalia da taldeko logotipoa?

KROKODILOA

Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hiru fitzak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).